



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2017/01/25

Errefuxiatuen "harrera-lurraldea" izateko prest dagola adierazo dau Bizkaiak barriro

Batzar Nagusiek irakurri daben erakunde-adierazpenean Bizkaia errefuxiatuen “harrera-lurraldea” izateko prest dagola adierazoten da barriro be, eta “helburu hori benetan gauzatzeko” beharrea jarraitzeko eskatzen jako Bizkaiko Foru Aldundiari. Gaur goizean Gernikan egin dan kontroleko osoko bilkuran Ana Otadui Batzar Nagusietako presidenteak irakurri dauen adierazpenean, Grezian dagon Igomenitsa-Tesprotiako portuan abenduan Mikel Zuluaga eta Begoña Huarte aktibistak atxilotu ostean zabaldu dan auzipetzea aitutzen da. Atxiloketea, errefuxiatu talde bat Euskadira ekarteko ahaleginetan ari zirala egin zan, “gerretatik eta txirotasun larritik igesean dabilzanek jasaten daben egoerea salatzeko aldarrikapen-ekintza moduan”.

Horri jagokonez, Bizkaiko Batzar Nagusiek hau adierazo dabe: “Mediterraneoan gertatzen ari dan krisi humanitarioak eta gure mundu honetan jazoten diran beste askok eragin dituen milaka pertsona desplazatuena eta errefuxiatuena egoerearen aurrean, eta Europako estatuek errefuxiatuenganako gauzaten dituen politika oker eta insolidarioen aurrean, ulertzen dogu eta bat egiten dogu Bizkaiko gizarteak eta Euskal Herriko eta Europako erakunde eta ordezkariak agertu daben haserre, ardura eta desadostasunagaz”.

NAZIEN HOLOKAUSTOA

Saio berean, Holokaustoko Biktimak Oroitzeko Nazinoarteko Eguna dala eta onetsi dan beste erakunde-adierazpen baten bitartez, nazien jazarpena jasan eben biktimak gogoratu dira eta, beren-beregi euretariko 200 euskaldun inguru —horreetariko 70etik gora bizkaitarrak—.

Bizkaiko Batzar Nagusiek kondenau egiten dabe Holokaustoaren “izugarrikeria eta krudelkeria”, “erregimen naziak adin guztietako pertsonak jazarri eta era sistematikoan sarraskitzea ekarri ebalako”, eta “oroitza eta ohore-adierazpena” egin gura deutsee Holokaustoaren eta naziek eragindako sarraskiaren biktima guztiei, “euren artean euskaldunak eta bizkaitarrak egozala”. (IKUSI ITSATSITAKO ADIERAZPENAK).

HOBEKUNTZA LANAK 2018TIK AURRERA KUKULARRAN ETA GURUTZETAKO TRUKAGUNEAN

Bizkaiko Foru Aldundia hainbat alternatiba ari da lantzen Ibaizabalgo itsasadarraren alde bien arteko bideko loturak hobetzeko eta Errontegiko zubiak jasaten dauen trafiko intentsidade handiari konponbidea emoteko. Holan adierazo du gaur Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko diputatu jaunak kontroleko osoko bilkuran, Bizkaiko Talde Popularrak egin dauen itaunari erantzunez. Talde popularrak, Bizkaiko bide sareko leku horretan “egunero gertatzen diran trafiko pilaketak” konpontzeko neurriak eskatzen ebazan.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Holan, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapeneko diputatu jaunak iragarri dauenez, egitekoak aurreratuta dagoz Kukularrako lotunea barriztetako eta Gurutzetako trukagunearen ahalmena handitzeko eta astegunetan 150.500 ibilgailuren zirkulazinoa jasaten dauen Errontegiko zubiko trafikoa arintzeko lanak Bidesarea planean sartzeko.

Pradalesek zehaztu dauenez, aurreikuspenak beteten badira, Errontegi, Txorierrri eta La Avanzada lotzen dituan puntu “kritikoa” dan Kukularrako jarduketea 2018an jarriko da martxan, eta hainbat fasetan gauzatu beharko da. Aldundiak aurreikusi dauenez, hainbat urtetan “14 milioi euro inguru” inbertidu beharko dira, eta lanak amaitzeko “2 urte eta erdi” inguru beharko dira. Aldundiak eginda dauka proiektua, eta une honetan tramitazino fasean dago, onartua izateko. Proiektuak ingurumen eraginari jagokon aldeko adierazpena jaso dau daborduko.

Horrez gain, Gurutzetako trukagunean egin beharreko jarduketari jagokonez, diputatuak azaldu dauenez “2 milioi euro inguruko aurrekontua dago aurreikusita”. Pradalesek jakinarazo dauenez, obra konplexutasun “handikoa” da. Lan hori be 2018an hasiko da eta, hori dala eta, Kukularran egin beharreko obrekin koordinatu beharko da.

ETXEKO ARRETA ZERBITZUEN ZORRA

EH Bilduk egindako itaunari erantzunez, Ibone Bengoetxea Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako foru diputatu andreak, baieztu egin dau Aldundiak 9,4 milioi euro emon beharko deutseela udalei, udalerriek 2014 eta 2016 artean egin ebezan etxeke arretaren inguruko zerbitzuak dirala eta. Diru hori Estaduak jarri beharko dau, Kupoaren bitartez.

Bengoetxeak esan dauenez, joan dan abenduaren 20ko Gobernu Kontseiluak diru-kopuru hori bermatzea eta oraindino kobrau barik dagon zor hori “autortzea” erabagi eban. Dana dala, EH Bilduk ulertu dauenez, ez dala ordainduko esateko modu bat da hori. “Kezkagarria, onartezina eta oso larria” da, adierazo dau Arantza Urkaregik, udalek euren aurrekontuetan diru hori kontuan hartu dabela azpimarratu ostein.

Bengoetxeak esan dauenez, barriz, abenduaren 21ean modu ofizialean eskatu jakon kopuru hori Estaduko Gobernuari, eta baita Foru erakundeari, mendekotasun legeagaz erlazonautako zerbitzuak dirala eta, jagokozan beste “61 milioi euro” be. Bere berbetan, puntu horretan “ez dago desadostasunik” Madrilgo eta Gasteizko Gobernuak egiten ari diran negoziazioetan.

Urkaregik, barriz, esan dau, tamalgarria dala beste batzuetan Euskadiko Administrazioek dirua zelan aurreratzen daben ikustea, Euskadin finantzetan eta gauzatzen dituan AHTren zatiak dirala eta Eusko Jaurlaritzak aurreratu dituan “1.470,8 milioi euroakaz” gertatu dan moduan.

BARRIKUNTZA ETA KAPITAL FUNTSEN ARAUAK LEHENENGO HIRUHILEKOAN

Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, EH Bilduko batzarkideak egindako erantzun-eskeari erantzunez, aurtongo “lehenengo hiruhilekoan” Bizkaiko Batzar Nagusietan Barrikuntza eta Kapital funtsen inguruko arautegia onartzea aurreikusten dauela adierazo dau, aurtun bertan martxan jarri ahal izateko.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

BATZARKIDE BARRIA

Kontroleko bilkuraren hasieran, Alfredo Olea Pueyok Batzarretako Euzko Abertzaleak taldeko batzarkide barri kargua hartu dau, Janire Bijueska ordezkatur.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
25/01/2017

Bizkaia reafirma su disposición a ser "territorio de acogida" de refugiados

Las Juntas Generales vizcaínas han dado lectura a una Declaración Institucional en la que se reafirma la disposición de Bizkaia "a ser territorio de acogida" de refugiados y se insta a la Diputación Foral de Bizkaia a seguir trabajando "para que este objetivo sea una realidad". En la declaración, leída en el pleno de control celebrado esta mañana en Gernika por la presidenta de la Cámara, Ana Otadui, se alude al proceso judicial abierto tras las detenciones en diciembre en el puerto griego de Igomenitsa-Tesprotia de los activistas Mikel Zuluaga y Begoña Huarte, cuando trataban de trasladar a un grupo de personas refugiadas a Euskadi en un acto "reivindicativo para denunciar la situación que sufre el colectivo de personas que huyen de guerras y situaciones de pobreza extrema".

En este sentido, las Juntas Generales de Bizkaia afirman que comprenden y comparten la "indignación, preocupación y desacuerdo" que la sociedad vizcaína, entidades y representaciones de la ciudadanía vasca y europea muestran "por los miles de personas desplazadas y refugiadas derivadas de esta crisis humanitaria del Mediterráneo y de otras tantas que llevan dándose en nuestro mundo, así como ante las políticas negativas e insolidarias que estados europeos desarrollan hacia las personas refugiadas".

HOLOCAUSTO NAZI

En la misma sesión, la Cámara vizcaína ha recordado por medio de otra Declaración Institucional, con motivo del Día Internacional de Conmemoración en Memoria de las Víctimas del Holocausto, a las víctimas que sufrieron la persecución nazi y, particularmente, a los cerca de 200 vascos, más de 70 de ellos, vizcaínos.

Las Juntas Generales de Bizkaia han condenado el "horror y la crueldad" del Holocausto que causó "la persecución y el asesinato sistemático de millones de personas de todas las edades por parte del régimen nazi", y han deseado "recordar y honrar" a todas aquellas personas víctimas del Holocausto y del exterminio nazi, "personas entre las que también se encontraban vascos y vizcaínos". (VER DECLARACIONES ADJUNTAS).

OBRAS DE MEJORA A PARTIR DE 2018 EN KUKULARRA E INTERCAMBIADOR DE CRUCES

La Diputación Foral de Bizkaia está trabajando en diferentes alternativas para mejorar las conexiones viarias entre las dos márgenes del Nervión y dar solución a la elevada intensidad de tráfico que soporta el puente de Rontegi. Así lo ha asegurado el diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, durante el pleno de control, en una interpelación del grupo Popular Vizcaíno que le reclamaba medidas para solucionar los "atascos diarios" que se producen en esta zona de la red viaria vizcaína.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

En este sentido, el diputado de Desarrollo Económico y Territorial ha anunciado que ya hay trabajo avanzado para incorporar al plan Bidesarea la remodelación del enlace de Kukularra y el aumento de la capacidad del intercambiador de Cruces, y agilizar el tráfico del puente de Rontegi que soporta la circulación de 150.500 vehículos en días laborables.

Según ha detallado Pradales, la actuación en Kukularra, punto “crítico” que conecta Rontegi, Txorierra y La Avanzada, está previsto que pueda arrancar en 2018 y será necesario actuar en varias fases. La Diputación estima una inversión plurianual “del orden de los 14 millones de euros” con un plazo de ejecución de las obras del entorno de los “2 años y medio”. La Diputación ha realizado ya un proyecto que se encuentra actualmente en fase de tramitación para su aprobación y que ya ha recibido la declaración de impacto ambiental favorable.

Asimismo, respecto a la actuación del intercambiador de Cruces, el diputado ha explicado que “tiene una previsión presupuestaria de unos 2 millones de euros”. Pradales ha advertido de la “alta” complejidad de la obra, la cual comenzará también en el año 2018, lo que obliga a que se coordine con las obras a acometer en Kukularra.

DEUDA CON LOS SERVICIOS MUNICIPALES DE ATENCIÓN A DOMICILIO

En una interpelación de EH Bildu, la diputada foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales, Ibone Bengoetxea, ha confirmado que la Diputación tendrá que ingresar a los ayuntamientos 9,4 millones de euros en concepto de servicios por la atención domiciliaria que realizaron los municipios entre 2014 y 2016, aunque ha advertido de que se trata de un dinero que corresponde aportar al Estado vía Cupo.

Bengoetxea ha informado de que el Consejo de Gobierno del pasado 20 de diciembre acordó garantizar ese importe y “reconocer” esa deuda que está pendiente de cobro, algo que, sin embargo, EH Bildu ha interpretado como una negativa a pagar. Es “preocupante, inaceptable y muy grave”, ha señalado Arantza Urkaregi quien ha insistido en que los ayuntamientos contaban con ese dinero en sus presupuestos.

Bengoetxea ha asegurado en cambio que el 21 de diciembre se reclamó oficialmente esa cantidad al Gobierno del Estado y otros “61 millones de euros” que le corresponderían a la institución foral por servicios ligados a la legislación de dependencia, y en donde “no existen discrepancias” en las negociaciones que mantienen los Ejecutivos de Madrid y Gasteiz.

Urkaregi, sin embargo, ha lamentado que en otras ocasiones las Administraciones vascas sí llegan a adelantar dinero, como ocurre con los “1.470,8 millones de euros” que el Gobierno vasco ha pagado por los distintos tramos de AVE ejecutados en Euskadi.

NORMAS DE FONDOS DE INNOVACIÓN Y CAPITAL EN EL PRIMER TRIMESTRE

El diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, ha señalado en el pleno de control, en respuesta a una pregunta del juntero de EH Bildu, que espera poder aprobar “en el primer trimestre” de este año en las Juntas Generales de Bizkaia la normativa relativa a los fondos de innovación y de capital con el objetivo de poder ponerlos en marcha este año.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NUEVO JUNTERO

El pleno de control ha arrancado con la toma de posesión de Alfredo Olea Pueyo como nuevo apoderado del grupo juntero Nacionalistas Vascos, en sustitución de Janire Bijueska.